

NESKATILLA BATEN ERIOTZAKO AGURRAK.



(NEURE ADISKIDE ON EZEKIEL ECHEBARRIA EUSKALDUN JAKINTSU ANDIARI)

Agur ¡o! zemendiko¹ aurrenengo eguna,
Eguzki motelagaz zareana gorde;
Agur, zuk egitean jaubetu jar illuna,
Geiago goiñ gozoak poztuko enabe.

Agur ¡o! uda eder amaitu ziñeana,
Bear ziñean aña eziñ neurtiztua;
Agur, udazkenetan zatozan urakana,
Egan eroateko orri igartua.

Agur, loracho polit usaiñ onak opaka,
Bizi zineeñak atzo kolkoak zabalik;
Agur, chori zoliak egunari dedarka,
Zenbiltzenak goiñetan ni esnatu nairik.

Agur, mundu zoroa, agur deutsut egiren
Niretzako ez dozu gaur balio ezer;
Zerren oraiñ niñioian bizitera asiten,
Eta uste guztiak urten deusten oker.

Agur ¡o! etorkizun eskinsariz betea,
Agur edertasuna, agur ondasunak,

(1) Noviembre.

Agur ¡o! Mariaren alabazko taldea,
Agur, bertako nire dontzella lagunak.

Agur, familiako maitetasun gozoak,
Agur, amacho zure laztan atsegiñak,
Agur, aita maitea, aizta ta nebachoak,
Agur, jolas pozgarri zuekaz egiñak.

Agur, agur banoa, banoa bai, betiko,
Banoa, baña noa, beti iraunera;
Banoa, baña, enaz atzera etorriko,
Ama biotzekoaz bizi izatera.

Arbolatik gaur jausten diran orri igarrak,
Legez ama zugandik noa jausitera;
Emon deust uste бага gazterik ill bearrak,
Orbel bat legez noa auts biurtutera.

Ez egizu amacho, ainbeste negar egiñ,
Agertuten jat beste ama bat obea;
Gorpotz au osatuten zuk deustazu alegiñ,
Ak zoriondu nai deust baña arimea.

Zu ichita, agana noa ama samiñdua,
Ak gozatuko deustu gaurko zure miña;
Gorputz au larjetan dot, arime au banua,
Goz etara zeruan bai, Ama Birjiña.

.
Loracho baten gisan, sameak ukatzean,
Neskatileak eban makurtu burua;
Zemendian orriak igarrrik jausitean,
Agertu eben danak ill aren damua.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1891.ko Zemendiaren 1.an

